

Gretak izugarri maite du bere maskota.
Hodei bat da!

Baina, euriarekin gertatzen
den bezalaxe, ezin denen gusturik egin.
Eta bizilagun batzuk ez daude oso
pozik Gretaren hodeiarekin.

Hau gero eta txikiagoa ari da bihurtzen,
eta orduan, egun batez...



ISBN: 978-84-10074-39-2 www.nubeocho.com



GRETAREN HODEIA

David Hernández Sevillano


Luisa Vera

nubeocho

GRETAREN HODEIA

David Hernández Sevillano

Luisa Vera





Mariari, Greta bezain alaia denari.

David Hernández Sevillano

*Tomé, Carlota eta Ana maiteentzat
(eta hauen maskota Cuera, Matilda, Gómez eta Peperentzat).*

Luisa Vera



Gretaren hodeia
Somos8 bilduma

© testuarena: David Hernández Sevillano, 2024

© irudiena: Luisa Vera, 2024

© argitalpenarena: NubeOcho, 2024

© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2024

www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *La nube de Greta*

Lehen argitaraldia: Otsaila, 2024

ISBN: 978-84-10074-39-2


Gordailu Legala: M-386-2024

Portugalen inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatua lan honen kopiaketa.

GRETAREN HODEIA

David Hernández Sevillano
Luisa Vera



Gretak maskota bat nahi zuen munduan beste ezer ez bezala...





Baina Gretak sekulako
alergia zien animaliei.


Hala ere, maskota bat desio zuen munduan
beste ezer ez bezala. Eta, hala, egun batez...




Hodei bat lortu zuen!



Kotoi-itxurako hodei erraldoi zuri bat zen, hodei guztien antzera, formaz sarritan aldatzen zuena:




Batzuetan,
itsasontzi bat
zirudien...



Beste batzuetan,
dragoi bat...

Eta, tarteka, elefante bat irentsi
berri duen suge bat ere bai...



Lehen egunetan, bizilagunetako batzuek hodeia haien etxe aurretik paseatzera atera zezan eskatu zioten Gretari...

Nire geranioak
urezta ditzala!

Nire balkoia
garbi dezala!

Nire lorategian
itzala eman dezala!

Nire jirafa
dutxa dezala!



Gretak bere maskota batetik bestera
paseatzen igarotzen zuen eguna.



3 sute itzali zituen!



Eta 5 igerileku bete!



Baita 7 baratza ureztatu ere!

